

## Prentsarako txostena



Guggenheim Bilbao Museoak 2017ko azaroaren 23an aurkeztuko du

**Amie Siegel: *Negua***

## Amie Siegel: *Negua (Winter)*

- Datak: 2017ko azaroak 23–2018ko martxoak 11
- Komisarioa: Manuel Cirauqui
- Film & Video aretoa (103)

Azaroaren 23tik 2018ko martxoaren 11 arte lehen aldiz erakutsiko da European Amie Siegelen *Negua (Winter, 2013)*, Guggenheim Bilbao Museoa. Solomon R. Guggenheim Museoaren bildumako parte den lan honek itxiko du 2017ko Film & Video aretoko programazioa. Guggenheim Bilbao Museoaren ekimena da Film & Video aretoa, bideoarteak, bideoinstalazioak eta mugimenduan dagoen irudiak arte-baliabide gisa sortutako lan giltzarriak erakusteko abiatua.

Zinemagintzaren funtsezko elementuei eta denborak ekoizpenean duen paperari dagokionez, *Negua* lanean erakusten den bezala, honakoa aipatu du artistak: “*Negua* denbora anitzeko filma da; etorkizun ezezagun bat erakusten duen iragan hurbil batean grabatua, eta erakusten den orainaldian azaldu eta aldatu egiten dena. Ezegonkortasunaren eta ziurgabetasunaren denbora- eta kultura-baldintza desberdinak irudikatzen ditu, eta beroketa globala eta istripu nuklearrak bezalako gaiak jorratzen ditu, zinemaren eta irudi fotografikoaren izaera finkoa hankaz gora jartzeko.”

Amie Siegelek (Chicago, 1974) obra ireki gisa sortu zuen *Negua*, erakusten den bakoitzean aldatu egiten dena; jatorrian 2013an filmatu zuen Zeelanda Berrian, eta grabaturiko soinudun proiektzioak eta zuzeneko emanaldiak txandakatzen ditu. Txandakatze horrek erakusketa-aretoa ekoizpen- eta sortze-espazio aktibo gisa esperimentatzeko aukera ematen dio bisitariari. Auckland-eko Trienalak (Zeelanda Berria) eskatuta osatu zuen *Negua* Siegelek, eta lehen aldiz erakutsiko da European, Guggenheim Bilbao Museoko Film & Video aretoan.

Amie Siegelek tokiko artistekin egiten du lan *Negua* obraren aurkezpen bakoitzean, musikari, aktore edo efektu-sortzaileekin; hala, obrak bere aldi baterako kokapenarekin duen harremana aztertzen du, eta ekoizpen-espazio ibildaun batean birkokatzen du proiektzioa. Modu horretan, filmaren erreproduktzio bakoitza berrinterpretatu egiten da zuzenean produzitzen den soinu-banda baten bitartez: etengabeko aldaketan murgilduta, off ahotsek, soinu-efektuek eta musikak obraren emanaldi bakoitzak irauten duen hogeita hamar minutuetan entzun daitekeen partitura bizi bat itxuratzen dute. Bikoizketa bat baino gehiago, etengabeko banatze bat da lan honetan ematen dena, soinu-gidoi desberdinen arabera irudi filmiko baten arintasuna agerian utziz. Hala, fluktuatu egiten dute proiektzio bakoitzean atmosferak eta intentsitate emozionalak.

Lan Athfield arkitektoak Zeelanda Berriko urrutiko enklabeetan diseinatutako itxura bioformoko etxebizitza kareztatuetan grabatu zen filma, eta Lurreko azken giza kokagunea dirudien komunitate baten bizitza islatzen du. Irudiek inguru mortu bat eta desagertutako zibilizazio baten arrastoak erakusten dituzte, eta

gerra nuklear bat edo hondamen ekologiko bat dakarte gogora. Arkitektura eta atrezzoak futuristak eta zaharkituak dira aldi berean. Badirudi txoriek ere paper berezia betetzen dutela bizirik atera direnen nostalgian. Obrak etorkizun hurbil bat iradokitzen digu, non giza bizitza desagertzearekin dagoela ematen duen. Erakusten diren toki eta objektuen aspektu ezagunak sendotu egiten du harridura-sentsazio anbiguo bat, filmaren soinu-banda zentzu posible bat ezartzeko giltzarri gisa sortzen den bitartean.

## **Amie Siegel. Biografia**

Amie Siegelek (Chicago, 1974) zinema, bideoa, argazkilaritza edo soinua bezalako bitarteko desberdinak jorratzen ditu, eta irudikatutako esanahi-geruza desberdinak erakusten ditu horien bitartez, bereziki zaintzen dituen instalazioetan. Kontaketak espazio eta lurralde gisa hartuta, eta dokumentu eta artefaktuak memoriaren eta desiraren lekuko gisa jorratuta, filmaren eta berorren gauzatzearen zirkunstantzien arteko harremana jartzen du zalantzan artistak. Siegelek bere lanaren hastapenetatik ulertu zuen hizkuntza filmikoa kulturalki kodifikatutako praktiketan datzala, infinitura arte errepikatzen dituen baliabide, muntaia-estrategia eta ikuskatze-egoerak. Hau du abiapuntu lan egiterakoan: konbentzio horiek ia guztiak aldatzeko aukera dago; hala, ikuslearen esperientzia aberasten du.

Bai proiektu indibidualak eta bai kolektiboak garatu ditu Amie Siegelek, munduko museo eta arte-galeria garrantzitsuenetarako. Bere bakarkako erakusketa berrienen artean South London Gallery, New Yorkeko Metropolitan Museum of Art, Municheko Villa Stuck, Stuttgarteko Kunstmuseum eta Vienako MAK erakustokietakoak daude. Gainera, erakusketa kolektiboetan ere parte hartu du, besteak beste honako museo eta galerietan: Rotterdameko Witte de With; New Yorkeko Whitney Museum of American Art; Londreseko Hayward Gallery; Berlineko KW Institute for Contemporary Art; San Frantziskoko CCA Wattis; MoMA PS1; Erromako MAXXI Museoa; New Yorkeko Swis Institutua; Berlineko Haus der Kulturen der Welt eta Minneapoliseko Walker Art Center. Bere obrak Whitney Museum of American Art, Metropolitan Museum of Art, Tate Modern eta Solomon R. Guggenheim Museum bezalako museoetako bilduma publikoetan aurki daitezke. Cannes, Berlin, Toronto eta New Yorkeko zinema festibaletan proiektatu dira bere filmak. Berlineko DAADek, Guggenheim Fundazioak eta Harvardeko Unibertsitateko Fulton Fellow at The Film Study Center zentroen bekak eskuratu ditu, besteak beste, eta ICA Boston's Foster Prize, Sundance Institute eta Creative Capital sariak jaso ditu. New Yorken bizi da eta bertan egiten du lan.

## **Zuzeneko emanaldiak**

Obra ikusgai egongo den lau hilabeteetan zehar, 10 aldiz emango da zuzenean lanaren soinu-banda: Azaroaren 23an lehen aldiz, erakusketaren inaugurazioarekin bat etorrira, eta ostiraletan gero, azaroaren 24ean, abenduaren 1, 8 eta 15ean, otsailaren 2, 9 eta 16an eta martxoaren 2 eta 9an.

## **Amie Siegel Manuel Cirauqui komisarioarekin solasean (azaroak 23, 19:00etan)**

Amie Siegel bere sortze-prozesuaz eta Guggenheim Bilbao Museoko Film & Video aretoko *Negua* bere instalazioaz jardungo da azaroaren 23an, arratsaldeko 19:00etan, Guggenheim Bilbao Museoko Entzungelan. Hitzaldiaren ondoren, solasaldi bat egingo bertaratutako publikoarekin.

## Film & Video (103. aretoa)

Bideoarteari, bideoinstalazioari eta mugimenduan dagoen irudiari eskainitako espazioa da Film & Video aretoa, eta Guggenheim museoetako eta beste nazioarteko bilduma batzuetako obrak hartzen ditu. 2014ko martxoan ekin zitzaion areto honetako programazioari, Christian Marclayen *Erlojua (The Clock)* instalazioarekin; urte berean, ekainean, Ragnar Kjartansson artista islandiarraren *Bisitariak (The Visitors)* lana eman zen. Ondoren, urrian hasi eta 2015ko martxora arte, Rineke Dijkstraren *The Krazyhouse (Megan, Simon, Nicky, Philip, Dee), Liverpool, UK* lana erakutsi zen, eta urte hartako martxoan hasi eta uztailean arte, *Hariaren ibilbideak (Thread Routes)* lana izan zen ikusgai, Kimsooja artista kontzeptualarena. Hurrengo obra, Shahzia Sikander-en *Paralaje (Parallax)*, 2015eko azarora arte erakutsi zen; gero, abenduaren 3tik 2016ko apirilaren 24ra arte Singapurreko Ho Tzu Nyen artistaren *Ezagutzen ez denaren hodeia (The Cloud of Unknowing)* izan zen ikusgai eta, horren ondoren, maiatzaren 12tik 2016ko abuztuaren 28ra arte, Eija-Liisa Ahtila artista finlandiarraren *Deikundea (The Annunciation – Marian Ilmestys)*. Horren ondoren iritsi zen, irailaren 8tik abenduaren 16ra arte, Sam-Taylor Johnsonen *Hasperena (Sigh)*, eta ondoren Fiona Tan-en *Ekialdeari begira, galduta (Disorient)*, 2016ko abenduaren 22tik 2017ko martxoaren 19ra arte. Pierre Huyghe artista frantsesaren (*Titulurik gabekoa*) *Giza maskara [(Untitled) Human Mask, 2014]* aurten erakutsi da, martxoaren 30etik uztailearen 16ra, eta Ken Jacobsen *Gonbidatuak (The Guests)* izan da aretoan erakutsi den azken obra.

### Azaleko irudia:

Amie Siegel

*Negua (Winter)*, 2013

Jatorrizko 16 mm-ko filma bereizmen handiko bideora transferitua, 33 min, koloretan, soinuduna, performancea eta objektuak

Solomon R. Guggenheim Museoa, New York

Honen funtsekin eskuratua: Young Collectors Council, 2015

### Informazio gehiago:

Guggenheim Bilbao Museoa

Marketin eta Komunikazio Saila

Tel: +34 944 359 008

[media@guggenheim-bilbao.eus](mailto:media@guggenheim-bilbao.eus)

[www.guggenheim-bilbao.eus](http://www.guggenheim-bilbao.eus)

Prentsa irudiak:  
**Amie Siegel: *Negua (Winter)***  
Guggenheim Bilbao Museoa

**Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua**

Museoaren webguneko prentsa eremuan ([prensa.guggenheim-bilbao.es/eu](http://prensa.guggenheim-bilbao.es/eu)) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 35 90 08, edo posta elektronikoki bidez, [media@guggenheim-bilbao.eus](mailto:media@guggenheim-bilbao.eus)

Amie Siegel

*Negua (Winter)*, 2013

Bereizmen handia, jatorrian 16 mm-ko super pelikularekin filmatua, koloretan, soinuduna, performancea, objektuak.

Solomon R. Guggenheim Museum, New York

Honen funtsekin eskuratua: The Young Collectors Council, 2015



Amie Siegel

*Negua (Winter)*, 2013

Bereizmen handia, jatorrian 16 mm-ko super pelikularekin filmatua, koloretan, soinuduna, performancea, objektuak.

Solomon R. Guggenheim Museum, New York

Honen funtsekin eskuratua: The Young Collectors Council, 2015



Amie Siegel

*Negua (Winter)*, 2013

Bereizmen handia, jatorrian 16 mm-ko super pelikularekin filmatua, koloretan, soinuduna, performancea, objektuak.

Solomon R. Guggenheim Museum, New York

Honen funtsekin eskuratua: The Young Collectors Council, 2015



Amie Siegel

*Negua (Winter)*, 2013

Bereizmen handia, jatorrian 16 mm-ko super pelikularekin filmatua, koloretan, soinuduna, performancea, objektuak.

Solomon R. Guggenheim Museum, New York

Honen funtsekin eskuratua: The Young Collectors Council, 2015



Amie Siegel

*Negua (Winter)*, 2013

Bereizmen handia, jatorrian 16 mm-ko super pelikularekin filmatua, koloretan, soinuduna, performancea, objektuak.

Solomon R. Guggenheim Museum, New York

Honen funtsekin eskuratua: The Young Collectors Council, 2015

